

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak Memoria Historikoa nazioartean aztertzeke sare europar batean parte hartuko du

Memoriaren Europako Behatokiko (EUROM) koordinatzailea den Bartzelonako Unibertsitatearekin hitzarmen bat sinatu du

Osteguna, 2016.eko ekainak 23

Nafarroako Gobernuak Memoriaren Europako Behatokiarekin (EUROM) lankidetzan ariko da memoria historikoko politika publikoen kudeaketa elkarrekin egiteko, eskualde mailan nahiz estatu eta nazioarte mailan ere, bai eta alor horretako ikerketa sustatzeko eta ekintzak elkarrekin garatzeko ere.



Ana Ollo, akordioaren sinatzaileekin.

Horretarako, Foru Gobernuak hitzarmen bat sinatu du Bartzelonako Unibertsitatearekin (EUROMen koordinatzailea da), memoria historikoaren gaineko politika publikoak aztertu, landu eta sustatzeko asmoz, horri buruz beste herrialde europar batzuetan egindako ekimenak kontuan hartuz, eta esperientzia hori 33/2013 Foru Legean ezarritakoaren betearazpenenari eta garapenari aplikatuz; foru-lege hori, azaroaren 26koa, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa da.

Dokumentua honako hauek izenpetu dute: Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok; Bartzelonako Unibertsitateko Xabier Lopez Arnabat-ek eta EUROMeko Jordi Guixé-k. Bertan, Europak dituen memoriaren aniztasuna aitortzen da, eta alor horretako politika publikoak aztertu eta jorrazteko, beharrezkoa da esparru egonkor batean barnean lan egitea (EUROM), eta azken hori diziplina anitzeko eta zeharkako memoriei buruzko lan-sare baten moduan osatzen da.

Memoriaren Europako Behatokia

Memoriaren Europako Behatokia (EUROM), Bartzelonako Unibertsitateko Fundazio Solidarioak koordinatua, nazioartean erreferentzia da memoriaren politika publikoei dagokienez, ez Espainian bakarrik, baita Europan eta Latinoamerikan ere. 2012an sortu zen Europak herritarrekin egindako deialdiaren proiektu europar batetik abiatuz, eta urte hauetan guztietan bilakaera handia izan du, 30 bazkide baino gehiagoko sare bat bihurtu arte, Europako zenbait herrialdeetako profil unibertsitario

eta akademikoa dutenak. Honako helburu hauek ditu, besteak beste:

- Europako eta beste kontinente batzuetako memoriaren prozesuak identifikatu eta aztertzea aditu, profesional eta gizarte zibilaren ikuspegitik abiatuz. Unibertsitateak, erakundeak eta elkarteak dira sareko oinarria.

- Memoriaren politikaren aldeko eztabaida bat ezartzea, Europa edo nazioarte mailan adierazgarria izango dena.

- Memoriaren politikak aztertzen eta kudeatzen laguntzea, eta oroimenaren ekimenak sozializatzen laguntzea.

- Diziplina anitzeko ikerketa eta memoria publikoaren eraikuntzari lotutako lana sustatzea.